



sortutakoak
201113

 dantza
gunea

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte Diputación Foral de Gipuzkoa

 Gipuzkoako Foru Aldundia

Sortutakoak
programan zehar

igarobideak

Proiektu aukeratuak 2011-2013

Sortutakoak,
sorkuntza, ikerkuntza,
asmo berriak eta ekintzailtza
Gipuzkoako Dantza sektorean
laguntzeko ekimena

201113

taldea
Arantza Balentziaga
Ana Remiro
Manu Olano

lankidetzak
Aintzane Sainz De Murieta
Ainhoa C. Irastorza

 dantza
gunea

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte Diputación Foral de Gipuzkoa

 Gipuzkoako Foru Aldundia

aurkibidea

1. Dantzagunea, dantza laguntzeko zerbitzua Gipuzkoan 2
2. Egonaldiak, sorkuntzan zehar ibiltzeko testuingurua 4
3. Sortutakoak, sorkuntza laguntzeko programa 5
 - Zer da Sortutakoak?
 - Zer baldintza ditu Sortutakoak?
 - Nola baloratzen dira sorkuntza-proiektuak?
 - Zein fase barnean hartzen ditu egonaldi artistikoak?
4. Sortutakoak programatik zeharko ibilbidea 2011-2013 8
5. Garatutako proiektuetara begirada zehatza 9

201113
sortutakoak

1. Dantzagunea, dantza laguntzeko zerbitzua Gipuzkoan

Dantzagunea Gipuzkoako Foru Aldundiak dantzaren **ikaskuntza eta sorkuntza prozesuak** laguntzeko helburuarekin bultzatzen duen zerbitzua da, kulturaren balio-katea indartzen duten jarduerak garatuz (informazioa, prestakuntza, ikerkuntza, lankidetzeta-sareak, sorkuntza, ikusleak, banaketa,...):

- Sorkuntza koreografikoaren sustapena, egonaldien programa baten bitartez.
- Dantza profesionali eta amateurrei zuzendutako prestakuntza-jardueren antolaketa, alderdi teknikoetan, praktikoetan eta teorikoetan.
- Dantzaren diziplina guztiekin lana eta bestelako diziplina artistikoekin lotura.
- Dantzari buruzko intereseko informazio eta dokumentu-baliabideen zabalkundea.
- Hausnarketa, pentsamoldearen bilakaera eta asmoen eraldaketa.

Dantzagunearen lan-ildoetatik batek **sortze-prozesuak** laguntzea du helburu; horretarako, Sortutakoak izeneko **egonaldi-programa** eskura dauka.

2011. eta 2013. urteren bitartean Sortutakoak programaren eremuan garatutako sortze eta ikerketa-proiektuetatik ibilbidea aurkezten du dokumentu honek.

Gure helburua da proiektu horiek laguntzen jarraitzea, haien **ikusgarritasuna indartuko** duten kanal berriak irekiz.

sortutakoak

2. Egonaldiak, sorkuntzan zehar ibiltzeko testuingurua

Artisten sorkuntza laguntzean ardazten dute haien jarduera egonaldi artistikoei, **arreta jartzea** ahalbidetuko duen testuinguruaz hornituz, hausnarketarako, ikerketarako, antzezteko edo eta ekoizteko denbora eskainiz. Kultura-trukatzearen garrantzia maila ezberdinetan azpimarratzen dute egonaldi artistikoei, eta baita beste kulturetan murgiltzea ere.

Ez dago eredu finkorik: itxaropenak eta eskakizunak erabat alda daitezke. **Ostalariaren** eta **anfitrioia**ren arteko harremana alderdi garrantzitsua da askotan egonaldi-programan. Egoiliarrek bertako **komunitatearekin** nahasten dira maiz aurkezpenak eskainiz, haien lan-prozesua irekiz, tailerrak dinamizatuz, eta sorkuntzaren eta herritarren arteko lotura lortzeko giltzarria da alderdi hori.

Une gehienetan, harreman luzeagoen eta sakonagoen **hasiera** da soilik egonaldiaren esperientzia. Hasitako proiektua bukatzerako, erakustera, lankidetzako berria hastera edo erakusketa, talde edo tailer batean parte hartzerako **itzuli** ohi dira.

Egonaldia igarotzea da.

sorkuntza

3. Sortutakoak, sorkuntza laguntzeko programa

Zer da Sortutakoak?

Dantzaguneak 2011. urtean abian jartzen duen sortze-lan eta prozesuak laguntzen dituen programa.

Mugimendu-arten eremuan (ikusbizun eszenikoak edo kalekoak) egindako sorkuntza eta ikerkuntza proiektuetarako egonaldi artistikoak eta teknikoak planteatzen ditu ekimen honek, konpainia egonkorrei, banakako proiektuei edo proiektu zehatz baterako sortutako taldeei zuzenduta.

Programak barnean hartzen ditu: aretoen lagapena, baliabide ekonomikoak, laguntza teknikoa eta artistikoa, eta antzeko ezaugarriak dituzten bestelako guneekin mantentzen den lankidetzaren bitartez proiektuaren ibilbide artistikoa zabaltzeko aukera.

Zer baldintza ditu Sortutakoak?

- **Proiektua:** proiektu xehea aurkeztu behar da eta honek barne hartu beharko ditu ondorengo atalak: azalpen artistikoa, behar teknikoak, kanpoko begirada gisa jokatuko duen pertsona, egonaldiaren faseen planifikazioa eta proiektuan parte hartuko dutenen cv-ak.
- **Iraupena eta aretoen lagapena:** Egonaldiak gutxienez bi aste eta gehienez bi hilabetetako iraupena izango du. Lan-espazioa lagatzen da (gutxienez 3 ordu egunero), ekipamenduaz eta laguntza teknikoaz zein artistikoaz hornituz.
- **Baliabide ekonomikoak:** Egonaldiak eskaintzen du 1.000€-ko diru-laguntza eta 400 €-ko laguntza artistak proposatzen duen kanpoko begiradarako.
- **Gizarteari itzulera:** Artista bere lan prozesua ate irekiko jardunaldi baten eremuan eskola-umeei nahiz Dantzagunearekin adostutako beste ekintza batean irekitzera konprometitzen da.
- **Zabalkundea:** Artistak, bere lana hedatu orduko, Dantzagunea eta Gipuzkoako Foru Aldundia lankide gisa aipatzearen konpromisoa hartzen du. Dantzaguneak proiektu bakoitzeko zabalkunderako bideoa egiten du.

sortutakoak

Nola baloratzen dira sorkuntza-proiektuak?

Sortutakoak deialdi bakoitzean, hobeago baloratutako proiektuak aukeratzen dituzten sektoreko profesionalak eta adituek eta baita kideko eragile kulturelek osatutako balorazio-mahaia osatzen da.

Ondorengo itxaropenaketa-irizpideak hartzen dira kontutan:

- Proiektuaren interes artistikoa, esperimentazioa, lengoai koreografiko berriak sartzea, orijinaltasuna kontutan hartuta
- Asmoan eta proiektuaren garapenean zehaztasuna
- Lurralde-irizpidea (jatorria edo proiektuaren eragina edo lotura garatzen den tokiarekiko baloratuz)

Dantzagunearekin parte hartu dute balorazio-mahaietan: Asier Zabaleta, Idoia Zabaleta, Adriana Pous Ojeda, Xabier Mendizabal, Xabier Etxabe, Jexux Larrea, Arantza Balentziaga, Ana Remiro, Izaskun Lapaza, Mizel Théret, Martín Padrón, Ixiar Rozas, Ion Munduate, Oier Araolaza eta Nando Piñeiro.

Zein fase barnean hartzen ditu egonaldi artistikoak?

- Prozesu teknikoa
- Sortze-prozesua
- Sozializazio-prozesua/ikusgarritasuna (ate irekiak, Sortutakoak jaialdia)

Sortutakoak modalitateak

- Sortutakoak
- Sortutakoak tradizionala
- Sortutakoak-sarea (lankidetzak eta beste erakundeekin trukatzeko-sareak)

Sortutakoak Jaialdia

Sortutakoak Jaialdiaren lehenengo edizioa 2013ko urtarrilean ospatu zen eta bertan ondorengo lanak ezagutzera eman ziren: Andrea Quintana (Garabato), Sara Paniagua (Canciónlaverinto), Beatriz Churruca, Italo Panfichi (Todas las sangres), Mikel Sarriegi (Sanjoanetako neskatxen esku-dantza Beasainen), eta colectivo Dordoka (Emakumeari eta Dantzari buruzko ikerketa Gipuzkoan).

Sortutakoak jaialdiaren bigarren edizioa 2014ko otsailean ospatuko da.

Sortutakoak

4. Sortutakoak programatik zeharko ibilbidea 2011-2013

Dantza kontuetan sortze-prozesuak eta sorkuntza artistikoak laguntzen dituzten egonaldiek ibilbide zabala izan dute. 2011n hasi zirenetik geroztik, Sortutakoak programaren 7 deialdi egin dira:

- Dantza garaikideko eremuko mugimendu-artei buruzko sortze eta ikerketa-proiektuetan ardatsu dira egonaldien hasierako ildoak eta ardatz nagusia. Esparru honetan lau deialdi garatu dira guztira, 2011 eta 2013 urteren bitartean
- Programa garatuz doa eta hasierako ildoak osatzen du dantza tradizionalen oinarritutako mugimendu-arteetako proiektuetarako pentsatutako deialdi berriaren bitartez: Sortutakoak Tradizionala. Esparru honetan bi deialdi egin dira, non dantza tradizionalari buruzko ikerketa-proiektuak aukeratu baitira.
- Dantza eremuan diharduten bestelako erakundeekin (zentro koreografikoak, dantza jaialdiak,...), elkarlanean arituko diren sortze-egonaldien ildo berriari hasiera ematen zaio programaren hazkunderaren ondorioz, non Dantzaguneak haren egonaldietariko bat eskura jarriko baitu: Sortutakoak-sarea.



5. Garatutako proiektuetara begirada zehatza

Sortutakoak programaren eremuan garatutako proiektuei buruzko informazio xehea jasotzen duen banako fitxa aurkezten da atal honetan.

01	TEMPUS – i	Anakrusa
02	CANCIÓN LAVERINTO	Sara Paniagua
03	GARABATO	Andrea Quintana
04	TODAS LAS SANGRES	Italo Panfichi
05	AGERTU ARTEAN	Beatriz Churruka Etxeberria
06	LE PERE	Iker Arrue
07	SIN TÍTULO	Vicente Arlandis
08	ON	Eneritz Zeberio
09	HOOKED (STILL)	LASALA - Judith Argomániz
10	SANJOANETAKO NESKATXEN ESKU-DANTZA BEASAINEN	Mikel Sarriegi Etxezarreta
11	AXERI DANTZAREN INGURUAN	Andoaingo Axeri Dantza Elkartea
12	BATTLING SIKI	Alioune Diagne

sortutakoak

anakrusa
TEMPUS - i

TEMPUS – i

artista/taldea

anakrusa

Sortutakoak programaren edizioa

I Deialdia

Egonaldiaren garapena

**Urtarrila
Otsaila 2012**

Proiektuaren kideak

Noemi Viana
Eneko Gil
Iñigo Ortega
Ebi Soria



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

“Tempus - i” piezak hiru lengoai nahastu eta lengoai bakarra sortu nahi du musika, dantza eta antzerkia eszenatokian jarriz. Idazle batek bere lan-prozesuan zehar dituen gorabeherak izango dira istorioaren gidari, eta bere idazmakinare eta sormenaren arteko harremana dantzaren bitartez adieraziko da. Musika, eszenan azaltzen diren soinuen bitartez adierazita egongo da. Bidai emozional bat, denbora, metronomoa, idazmakina, denboraren balantza, denbora hautemateko modu ezberdinak, tempus, tempi, tempo, temporum, tempis, tempis.

Ikerketa-prozesuan zehar, taldea materiala sortzen hasi zen, soinua gorputzean eta espazioan islatzen dituen oihartzunak bilatuz. Idazmakina zaharrarekin eta metronomoarekin hasi ziren lanean eta “Tempus - i” konpainiaren lehenengo piezaren mundu barrenean sartu ziren.

Metrokoadroka *Dejabu panpin laborategia*

Arte-diziplina ezberdinetan ari diren lagunek osatutako taldea da Metrokoadroka. Arte eszenikoetan sortze-proiektuak laguntzeko, zabaltzeko eta garatzeko plataforma gisako tresna eraginkorra sortzea da kolektibo horren helburua. Dejaburi zuzendaritza artistikoa dagokio, bertan artista anitzek parte hartzen dutelarik.

● Proiektuaren/egonaldiaren garapena

Eusko Jaurlaritzaren Dantzan Bilaka 2011 programaren bitartez gauzaten eta garatzen hasi zen sortze-prozesu hau. Ikus-entzuleei beren lanak erakutsi nahi dizkieten koreografo hasiberriei laguntza ematea da programa horren helburua. Sortze-prozesuaren zati hori Artelekuko guneean egin zen eta antzeppen ofiziala Gasteizko Artium Museoan egin zen.

Dantzagunean egiten den egonaldiaren helburua zera da: pieza koreografikoaren prozesua garatzea bukatu arte, lanerako gunea aurkitzearen premiari erantzutea eta baita izaera teknikoko bestelako lanak garatzeko laguntza ematea ere (argiak, ...). Sortze-prozesuaren aurkezpen publikoa Erreterriako Niessen Kulturgunean egiten da.

● Egonaldiaren abiapuntuko itxaropenak/Sortze-prozesuan aurreratzea

Egonaldiak abiapuntuko itxaropenei erantzun die. Egonaldiaren aurretik, hasierako sortze-prozesuaren une batean kokatzen zen pieza hori. Egonaldiaren ondoren estreinaldirako prest zegoen pieza hori, 15 minututako iraupena izatetik 50 minututakoa izatera pasatuz.

● Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreran bultzada

Duela urte eta erdi estreinatu zenetik, oso ondo mugitu da pieza hori. Hala ere, zenbait zailtasun egon dira, pieza mugituko lukeen banaketa-enpresaren eza, besteak beste. Tempus-i zenbait gunetan antzeztu da 2012an eta 2013an zehar:

- DFeria 2012ko programazioan, Gazteszenan (2012ko martxoa)
- Erreterria Hiria Kulturgunea. Kukai Dantza Taldeak eta Erreterriako udalak antolatuta
- Leioako Auditoriumean – Kultur Leioa Dantza Zirkuitu (2012ko apirila)
- Donostia. San Telmo Museoa. CAF –Elhuyar Sariak
- Erreterria Hiria Kulturgunea. Eztena Festibala (2012ko ekaina)
- Luhuso. Harri Xuri. Karrikako Arteen Fabrika (2012ko azaroa).
- Biarritz. Le Colisée a Biarritz (2013ko martxoa)
- Sevilla. Universidad Internacional de Andalucía (2013ko iraila)
- Barakaldo Antzokia (2013ko urria)
- Durango. San Agustín Kulturgunea (2013ko azaroa)
- Civivox Iturrama. Iruña (2013ko azaroa)
- Elorrio. Arriola Antzokia (2013ko azaroa)

● Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak

Hurbileko egonalditzat hartu da. Dantzaguneatik gertuko konpainia izanda, pribilegioa da lan-guneak etxetik hurrean edukitzea. Bestalde, Gipuzkoan eskaintzen den/diren egonaldi bakarra/bakarretakoa da, eta horrek lagundu du kanpoko lankidetzak artistikoak egiteko orduan, hurbileko lagunekin lan egin ahal izan baita. Aspaldian egonaldiak eskaini dizkien taldeei jarraipen edo lanbide-aholkularitza egin diezaienaren mira dugu Dantzagunearekiko (adibidez, sare ofizial edo alternatiboak ezagutzeko, programatzaileekin harremanak, etab.).

Curriculum-aipamena

compañía anakrusa

Eneko Gil. Erretereria. Hispaniar Filologian lizentziatua. Txikitatik Ereintza Dantza Taldeko kide izandakoa. Kukai Dantza Konpainiako kidea da eta hainbat koreograforekin osatu du bere prestakuntza: Asier Zabaleta, Mikel Aristegui, Pantxika Telleria, Rosie Herrera, La Intrusa Danza, Michael Miller, besteak beste. 2009. urtean "Dantzari Bikainari Saria" eskuratu zuen Madrilgo Koreografia Lehiaketan.

Noemi Viana. Gasteiz. Gimnasia erritmikoan urte luzez trebatua. EHU, Psikopedagogia, Irakasle-eskolan eta SHEE/IVEFen tituluduna.

London Contemporary Dance School eta The Place eskolan dantza prestakuntza egin zuen eta baita bertako eskolako taldearen (Edge 08) partaide bilakatu ere. Koreografo desberdinekin lan egin du: Rui Horta, Asier Zabaleta, Menelva Harris eta Pedro Pieres, besteak beste. Koreografo bezala, Mexikoko IV Festival Muuval Collective-en parte hartu du. Jesus Rubioren elkarlanean Pi 20 sortu eta 2010eko Madrilgo Koreografia Lehiaketan sari anitzak jaso ditu, besteak beste: 2011ko Impuls Tanz-Vienna international Dance Jaialdian parte hartzeko aukera.

Iñigo Ortega Martinez (Donostia/Pasaia, 1975). London International School of Performing Arts eskolan eta Donostiako Arte Eszenikoen Tailerlean jaso du antzerki-prestakuntza. Bere lanbide-karreraren zehar eremu ezberdinetako proiektuetan parte hartu du: performanceak, antzezlanak, arte-diziplina ezberdinen arteko uztarketak, ...

Anakrusa 2011ko Dantzan Bilaka programaren bitartez diru-laguntza eskuratzean sortu zen Anakrusa (gaur egun Noemi Vianak, Eneko Gilek, Ion Estalak eta Iñigo Ortegak osatuta). Mugimenduaren, soinuaren eta espazioaren arteko sortze-kode komunak bilatzea da taldearen helburua. Laborategi esperimentalean murgilduta dagoela, konpainiak emaitza egokiak lortu ditu soinuak gorputzean lagatzen duen oihartzunean eta espazioarekiko eta hitzarekiko transposizioan. Idazmakina, metronomoa eta gorputzak berak sortzen dituen soinuak gaur egun haien lehenengo pieza, "Tempus - i"-ren oinarriak dira. Oraingo honetan kalea da lekua. Lan egiteko modua berbera da, zirikatzeari; hiri-leku bat, esertzeko banku bat, herritarrak bizi diren espazioa non "Insitu", Anakrusaren bigarren pieza, gertatzeaz baitago.

 + info

 Tempo-i Bideoa

 Webgunea Anakrusa

titulatuak

sara paniagua
CANCIÓNLAVERINTO

CANCIÓNLAVERINTO

artista/taldea

sara paniagua

Sortutakoak programaren edizioa

I Deialdia

Egonaldiaren garapena

**Martxo
Apirila 2012**

Proiektuaren kideak

**Sara Paniagua
Mónica Valenciano
Raquel Sánchez
Estela Lloves**

● Proiektuaren deskribapena

“Canciónlaverinto” ibilbide ezberdinetatik datozen 4 artisten arteko topagunea da, pieza hori osatzeko topagunea, ikuslearentzat eta proiektuan parte hartzen duten kideentzat bidaia, bukatu gabeko piezaren continuum. Pieza horrek lengoaien haustura dakar eta partaideak elkar ulertzea behartzen ditu. Lengoiaren berregituratzean eta dramaturgia koreografiko bat nola ehundu berriro ulertzean datza.

Pieza hori egiten den bitartean ikusleak behatzen ari dira, komunikazio-ehun horretan parte hartzen baitute. Ikusleak lanean parte hartzen du; haren begirada ezberdina da eta ikusi ez ezik, baita lanean parte hartzen du ere.



Kanpoko begirada

Nekane Santamaria.

utakoak

● Proiektuaren/egonaldiaren garapena

Sortutakoak programaren egonaldia garatzerakoan, pieza une berezi batean zegoen; hain zuzen, berriro idazteko denbora behar zen materialari berriro ekin ahal izateko. Piezak ateak zabaltzeko aurkezpena izan zuen Urnietako Sarobe Arte Eszeniko Gunean.

● Egonaldiaren abiapuntuak/Sortze-prozesuan aurreratzea

Egonaldiak itxaropenak bete zituen: alde batetik, eduki psiko-koreografikoen gramatikaren azterketan sakontzea; eta bestaldetik, espazioaren eta argien diseinuaren itxaropenak berriro aztertzea ikusleen erantzunaren arabera. Prozesuaren amaierak aurrerapausoa ekarri zuen; hau da, krisi larriak lanaren lengoaiaren oinarri buruz hausnartzera darama: izatea, sentitzea, mugimendua.

● Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreran bultzada

Gaur egun ber-edizio fasean dago pieza hori, prozesu-dokumentuen fitxategiaren arabera. Edozein urrats aurrerapausoa da, maila bat igotzea, arnasbidea. Agian bultzada bortitzegia izan daiteke, baina Dantzaguneak sortze-prozesu honetan eman digun laguntza eskertzen dugu.

● Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak

Ezberdintasuna: lan-taldearen hurbiltasuna egoiliarren premiei erantzuteko orduan.

Zailtasunak: entsegu-geletatik eta antzokietatik gertuko ostatu egokia topatzeko zailtasuna.

Curriculum-aipamena

sara paniagua

Koreografoa, artista bisuala, performer-a, dantzaria, argi-diseinatzailea, irakaslea eta ikerlaria. Antzerkia eta Dantza ikasi du Madrilen eta Euskal Herrian. Ondoren, Arte, Performance eta Antzerki-izaeran graduondokoa egin du Anbereseko Unibertsitatean (Belgika).

Sortzaile, musikari eta koreografo anitzekin elkarlanean aritu da: Loïs Touzé "Souvant dans le forêt", Carlos Marquerie "Lucrecia Vista por Cranach", Cristina Quijera "Agur Titán", Jorge Horno "Mejor haberla palmado", Germán Jáuregui "Leonzhino", La fiambrella obrera "Agencias", Olga Mesa "Desórdenes para un Cuarteto", "1999 Limitaciones, Mon amour" eta "Morir, dormir, tal vez, soñar", Belén Jiménez "Neverending song", Anna Villa eta Miguel A. García "Paralelo 9R", Beatriz Ortega "Siempre Tuya", "D.E.X", Mónica Giraldez "Algunas cosas se mueven", Moare danza "Zeru urdina", "Gata sombra", "Posición de la carne", "Une minute de silence", "Piel" eta "Larrutan Baby", Boris Achour "a Forest", Santiago Latorre "Orbita", Raquel Sanchez "Ruido Blanco", Laboratorio KLEM "Casi-Orfeo", Ana Borralho eta João Galante, "Sexy MF", Raquel Sánchez eta Mónica Valenciano "cosas_casas_cosmos".

1998tik geroztik Dantza Tailerrak irakasten ditu zenbait ikastetxetan eta 2005 eta 2008 urteren bitartean Euskal Herriko Unibertsitateko Dantza Gela elkar zuzentzen du. Baita, 2006 eta 2008 urteren bitartean ARTIUM-Gasteizko Arte Garaikidearen Museoa kokatuta dagoen laborategi bat zuzentzen du Idoia Zabaletarekin eta Isabel de Naveránekin elkarrekin, non gorputzaren inguruko arte-praktikak <GORPUTZ EREMUA> ikertzen baititu.

2003. urtetik aurrera sorkuntza bideografiakoari ekiten dio biziki, zinema esperimentaleko zenbait jaialditara zein instalaziotara aurkeztuz. Horra hor garai horretako piezak: "File 0019" (2003), "Self-Portrait" (2003), "Paralelo 9R" (2004), "Composition in RED" (2004), "Im-Pre-Visible" (2005), "Against Visibility" (2005), "L' amour au premier regard" (2006), "El sexo es algo que ocurre a los otros" (2007), "La doble superficie" (2008), "La paradoja del adentro" (2008), "En el horizonte de la desaparición" (2009), "Exploración del límite" (2010) eta "Registra duelo por amorosa (12 Horas de amor caminando)".



Sara Paniagua elkarrizketa
[Sortutakoak /Dantzagunea](#)



Web Sara Paniagua

Sortutakoak

andrea quintana camiñas
GARABATO

GARABATO

artista/taldea

andrea quintana camiñas

Sortutakoak programaren edizioa

II Deialdia

Egonaldiaren garapena

**Maiatza
Ekaina 2012**

Proiektuaren kideak

Andrea Quintana Camiñas



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

Hiri-testuinguruetan gorputzari eta espazioari buruzko ikerketa fisikoa da “Garabato”. Epe luzeko proiektua da, egiten den espazioarekin, proiektu hori biltzen duen ingurunearekin eta proiektu hori interpretatzen duenaren gorputzaren memoriaren egoerarekin kontsekuente izatea bilatzen duena. Aldatuz, eraldatuz, sortuz joan da “Garabato” azken bi urtetan zehar. Bizirik dagoen lana da, egiten den bakoitzean eta antzeten den espazioaren arabera bertsionatu egiten den bakoitzean berriro planteatu egiten dena. Lanari eusten dion egiturari buruz ikertzen du artistak, non edukia baino, edukitzailea baita aldatzen dena. Aldi berean, edukitzaileak edukia eragiten du haren forman, argian, ehunduran, ...

“Garabato” sortu aurretik, artistak denboraldi bat igaro zuen Belgikan, non margolaritzara eta eskulturara hurbildu baitzen eta horien arteko komuneko espazioa ulertzen saiatu zen. Horrek eragina izango luke sortze-prozesua hasterakoan, gorputza beste ikuspuntu batetik lantzen hasiz. Lerroak erakarrita, gorputzaren bultzadak trazuaren emaitzan duen eragina topatu du, eta baita lehenengo bultzadak eta ondorengoek espazioa izugarri eragiten dutela ohartu da. Lan hori eraldatuz doa denboraren poderioz, aurreko marrazki eszenikoak gorputzean lagatzen duen memoria hurrengo “Garabato” bihurtzen den arabera. Marrazten da, itxura galtzen du, ...

Paula Muela Parra. Dantza garaikideko koreografoa eta antzezlea eta perkusionista.

Haren sortze-prozesuaren kanpoko orientatzailetzat proposatu duen pertsona luzaro ezagutzen du artistak. Aspaldian elkarrekin lan egin dute. Sortzaile eta antzezleaz gain, perkusionista da. Argitasuna, erritmoa ematen dio, oso ona da deskodetzen eta sortze-prozesuan gertatzen ari dena zalantzan jartzen laguntzen du.

Curriculum-aipamena

andrea quintana camiñas

Dantza Klasikoko ikasketak egiten ditu A Coruñaako Kontserbatorioan. Ikasketak bukatu eta A Coruñaako Aldundiak beka ematen dio haren prestakuntza handitu dezan Madrilgo Carmen Senra Dantza Garaikideko ikastetxean, eta Bartzelonan egin ohi diren zenbait Workshop-etan. Ondoren, Bruselara mugitzen da eta bertan haren prestakuntza eta lanbide-garapena jarraitzen du hainbat tokitan: Reffinerie eta DanceCentrumJette, besteak beste. Baita, marrazketa eta eskultura ikasketak egiten ditu Saint Joose Noode-ko Arte Ederretako ikastetxean.

Antzezle gisa lan egin du hainbat sortzaileentzako: Carmen Werner "En Tierra" (2005); Cia.Daniel Abreu-rekin hainbat produktiotan: "Los pies descalzos", "Ojos de Pez", "Negro", "Por el Camino Verde" (2006-2008); Cia.Arrieritos "Trece Rosas" (2006-2008); Cia.La Familia "Paraíso 7" (2008); Ertza "ZOO", (2009); Cia Pisando Ovos "Tres" (2010); Cia.CielorasO (Igor Calonge) "Fácil" (2012).

Hainbat jaialditan parte hartu du, besteak beste: "Seis Cordas" (Vigo), "En Pé de Pedra" (Santiago de Compostela), "Forum de las culturas" (México, Monterrey), "In/ Off" (Aurillac, Francia), "Festival Don Quijote" (Paris). Dantza garaikideko irakaslea Carmen Senra dantza ikastetxean eta Carmen Roheren SCAENA-n.

Haren lanen artean ondorengoak aipa daitezke:

2011. "GARABATO" - ez ohiko espazioetarako bakar-saioa. EMPAPE jaialdian estreinatuta.

A Coruña. INJUVE 2012 saria

2011. "KISSING TROUGH" - Solène Coignard - ekin batera egindako bideo-sorkuntza. Brusela

2010. "NUDOS" - Paula Muela-rekin sorkuntza, Dies de Dansa jaialdian estreinatuta. Bartzelona

2008. "A MANO" - Ensalle Antzokian estreinatutako bakar-saioa. Vigo

2007. "CAMINO DE BELVIS" - Kaleko bakar-saioa, En Pé de Pedra jaialdian estreinatuta. Santiago


2006. "AS MOURAS" - Malas Herbas kolektiboarekin sorkuntza. Madril

2005. "DE BELLAS Y BESTIAS" - Malas Herbas kolektiboarekin sorkuntza. Madril

2004. "COME CORAZÓN" - Janet Novas-ekin sorkuntza. Madrilgo Lehiaketa Koreografikoan artista gonbidatuak .



Andrea Quintana elkarrizketa
[Sortutakoak /Dantzaquea](#)

 [Webgunea Andrea Quintana](#)

 [Vimeo "Garabato"](#)

Sortutakoak

italo panfichi huaman
TODAS LAS SANGRES

TODAS LAS SANGRES

artista/taldea

italo panfichi huaman

Sortutakoak programaren edizioa

II Deialdia

Egonaldiaren garapena

Uztaila 2012

Proiektuaren kideak

Italo Panfichi Huaman

Isaak Erdoiza

Maia Villot de Diego

Maite Bayon

Irati Iturrate

● Proiektuaren deskribapena

“Todas las sangres” gizabanakoaren begirada osatzea bilatzen duen proiektua da, haren bizitza osatzen duten gertaeren zehar ibiliz: jatorria, ibilbidea, heriotza eta memoria. Unibertsotik pertsonaletik abiatzen den saiakera da, baina guztioi dagokigun unibertsora heltzea bilatzen du. Ez dago pertsona zehatz baten historia kontatzeko interesik, norberegandik abiatuz, harantz joateko interesa baizik. Etapa hori pieza eszenikoa sortzeko hasiera da. Peruko zuzendari baten eta diziplina eszeniko ezberdinetatik datozen lau euskal artisten arteko topaketa eta elkarbizitza abiapuntutzat hartzen da. Topaketa, elkarbizitza eta lan-esperientzia da aldi berean.

Izaera autobiografikoko eta dokumentaleko testukoak eta testukoak ez diren materialetan oinarrituz, arte eszenikoen ikuspuntutik abiatuta, gizabanakoaren eta komunitatearen nortasuna osatzen duten funtsezko elementuei buruzko hausnarketa gauzatzea bilatzen du lan honek, eta baita bizitza-ibilbidea markatu duten gertaerek eusten dioten egitura dramatikoak eraikitzen saiatzen da ere. Aldi berean, arte eszenikoetan idazteko modu berriak probatu nahi ditu, dokumentu-antzerkiko nozioak esperimentatuz eta berezko lengoai eszenikoa lortu nahian.



Kanpoko begirada

Simona Ferrar. Suitzar dantzaria, aktorea eta koreografoa.

Arrazoi praktikoengatik proposatzen du artistak kanpoko orientatzaile hori. Alde batetik, eskarmentu koreografikoagatik eta gorputzarekin duen eskarmentuagatik (eta azken alderdi hori asko interesatzen zaio artistari); eta, bestalde, entzuteko gaitasunagatik. Solasaldiko ordu luzeek konplizitate sendoa sortzen dute, esperimentazioaren zailtasunak (zehazki, lan fisikoari lotutakoak) gainditzeko giltzak lortzen laguntzen duen ikuskera positiboa eskaintzen dute. Aspaldian elkarrekin lan egin izanak elkarrekiko konfiantza sortarazi du, proiektuak proposatzen dituen erronkei ekiteko beharrezkoa dena.

● Proiektuaren/egonaldiaren garapena

Egonaldia ondorengo fasetan antolatu da:

- Bat – Jatorria – Basoko zuhaitza ala ur gaineko uhartea naiz? Osatzen gaituzten elementuak biltzea bilatzen du, gure “bizitza” azaltzen duten testukoak eta testukoak ez diren lekukotasunen trataeraren bitartez, gure aztarnen eta denboraren marken miaketaren bitartez. Material horrekin gure funtsezko oinarria, gure pertsonaien – antzezleen jaiotza-agiria sortuko da.
- Bi – Ibilbidea – Iturburuak ez du bidez galdetu behar: Gure bizitzen, ibilbideen, harreman-sistemen, gertaeren, zikloen, topaguneen eta hausturen mapak egitea. Gizabanako baten bizitzan zeharko eraldaketa-uneak harrapatzea eta eszeniko bihurtzea bilatzen du ildo horretatik miatzeak. Gizabanakoaren bilakaera markatuko duten bizitzan zeharko gertaerak zehaztea eta identifikatzea bilatzen da.
- Hiru – Heriotza – Heriotza, gure isla: Heriotzarekin eta gure hildakoekin dugun harremana hirugarren lan-ildo da; paradokikoki, gure bizitzan zeharko ibilbidearen giltzak ezagutzera ematea bilatzen du.
- Lau – Memoria – Zure oinkadak nola ibili: Denborari eta herentziaren ikusezintasunari buruzko hausnarketa-espazioa da miaketa-bide hori. Gure bizitzako ekintza bakoitzak ondorioa edukiko du; itxuraz iragankorra den gure jokatzeko modua, denboran zehar eta maiz, gure ondorengo bitartez azalduko da.

● Egonaldiaren abiapuntuko itxaropenak/Sortze-prozesuan aurreratzea

Topaketa nola ematen den eta harreman-espazio horretan gertatzen dena da funtsezkoena. Kontutan hartu behar da egonaldiaren kideek ez zutela aurretik elkar ezagutzen, eta hori oso interesgarria da hasieratik. Gainera, horri gehitzen bazaio diziplina anitzeko izaera, hau da, kideek esperientzia edo iturri ezberdinak dituztela (antzerkia, dantza, performance, ...), lanean hasteko benetako orri zuria sortzen da.

Lan biziko hamar egun pasatuz gero, taldearen bizitza-ibilbidearen irakurketa eszenikoa lortu nahian, eta kontutan hartuta horrelako proiektua oso zabala izan daitekeela, bi puntu zehatzetan esperimentatzea lortu da. Alde batetik, etxea jatorrizko espazio gisa eta transmisioaren ideia, ezagutzaren, esperientzien transferentzia, inordetzara bidea.

Ikerketa-prozesuan kontutan hartu da hizkuntza eta bestelako kultura-adierazpenekiko ikaskuntza/hurbilketa. Euskal artisten pentsamoldean interes handia izan zuen artistak; herri bat ezagutu baitaiteke haren artisten pentsamoldearen bitartez, ezagutza-iturri eta benetako hurbilketa.

Egonaldiak aurretik sumatu ezin badira ere, artistaren itxaropenak bete ziren, batez ere entzute-espazioa topatu zuelako. Kasu honetan, egonaldia funtsezko urratsa izan zen, abiapuntua izan zen, hasierako bultzada, proiektua paperetik sorkuntzara pasabidea.

● Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreraren bultzada

Pieza edo hasierako proiektutik sortu zena estreinatu berria da Perun (2013ko urrian) eta orain Espainian zehar zabaltzea da helburua. Gaur eguneko egoera kontutan hartuta, artistak asmatu behar du sortzen jarraitzeko eta, neurri horretan, horrelako egonaldiek bultzada dakarte lanbide-karreran; eta nahiago luke horrelako bultzada gehiago etorriko balira.

Krisialdi une honetan ezin da ahaztu, krisi ekonomikoaz gain, kultura eremuan aurrera ateratzeko estrategiek eraginkorrak izan behar ez ezik, baita zentzu artistikoa (bai erakundeena bai sortzaileena) zorroztu behar dutela ere, eremu horretatik erantzunak ematen hasteko.

● Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak

Aurrera egiten jarraitzeko estrategiak eta itxaropenak dira egonaldiak, eta sare eta lankidetzaren artistikoetan eta instituzioetan oinarritu behar dira, arrazoi administratiboengatik ez ezik, baita kidetasunagatik ere, interes komunetan oinarrituz.

Egonaldiak biaki dira baina zailagoak dira kanpotik datozenentzat; hau da, kanpotik datorren artistak bere lana komunitatearekin elkarrekin antola dezala nola lor daiteke, eszenatik partekatuz haratago; hau da, nola egon daiteke benetako elkarriketa. Sortutakoak programaren egonaldian oso garrantzitsua izan da egindako jarraipena, hilabeteak geroago bigarren urratsa erakusteko Donostiara gonbidatua izatea eta ondoren Azalako egonaldiarekin lotura, zeinek proiektua behartu baitzuen urrats zehatzak ematera. Normalean bestelako egonaldietan ez da hori gertatzen.

Curriculum-aipamena

italo panfichi

Arte eszenikoetan ibilbidea Perun hasten du, bere jatorrizko herria, eta aktore izateko prestakuntza jasotzen du Unibertsitate Katolikoko Antzokian. Ondoren, Antzerki-zuzendaritzako titulua eskuratzen du Txileko Unibertsitate Katolikoko Antzerki Eskolan. Zuzendari gisa, hamabost bat sorkuntza eszeniko egin ditu eta herri ezberdinetan aurkeztu ditu: Peru, Txile, Argentina, Brasil, Mexiko, Kanada, Frantzia eta Espainia. Haren lanek antropologiarekiko, espiritualtasunarekiko eta sexualitatearekiko interesa erakusten dute.

2003. urtetik geroztik Europan bizi da eta lan egiten du; hasieran Frantzian, non Zinema eta Datza Garaikideko ikasketak egin baitzituen Marc Bloch Unibertsitatean (Strasbourg), eta 2007. urtetik geroztik Madrilen (Espainian). 2005ean UNESCOk eta Quebec-eko Arteen eta Letren Kontseiluak Aschberg beka ematen diote Kanadako Théâtre du Trident-en egonaldia egiteko. Urte berean "COEX – esperientzia kondentsatuak" izeneko performance-a aurkezten du Stimultania Arte Galerian (Strasbourg, Frantzia). Performance hori esperientzia transpersonalei eta inkontziente kolektiboari buruzko ikerketa eszenikoan datza. 2006an sortze-egonaldia egiten du Fées D'hiver-en (Crévoux, Frantzia), non "Coup de foudre" aurkezten baitu, "Orlando", Virginia Woolf-en lehenengo eleberritik abiatuta. Madrilen hiru antzerki-saio aurkeztu ditu ez ohiko espazioetan: "Carné de identidad" (2006), "Durmientes" (2007) eta "Intima" (2009). 2008an, Simona Ferrar koreografoarekin elkarrekin egindako "Hora infinita" aurkezten du Espainian. Urte berean, IBERESCENA Laguntza-funts Iberoamerikarrak diru-laguntza ematen dio "Resurrección" pieza Dominique Lechech frantziar idazlearekin elkarlanean idazteko. 2010ean, Mexikoko Kulturarako eta Arteetarako Nazio Funtsak eta AECID- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Agentzia Espainiarrak lagundutako Sortzaile Iberoamerikarrentzako Programan artista egoiliarra da; programa horren eremuan "Pasajero en Tránsito" lana estreinatzen du Arte Iberoamerikararren Hirugarren Erakusketan (Mexiko DF). 2011n, Simona Ferrar artista koreografikoak zuzendutako dantza garaikideko "Soniris" piezan parte hartzen du antzerkigile gisa, eta Espainiako gizarte eta politika-krisiari buruzko ikerketa eszenikoko laborategia zuzentzen du, ETC- Espacio Teatro Contemporáneo (Cuarto Pared, Madril) programaren barnean. 2013an "La Visita" estreinatzen du Espainiako Kultura-gunean (Lima, Peru).



Italo Panfichi elkarrizketa
[Sortutakoak /Dantzagunea](#)

Sortutakoak

beatriz churruca echeverria
AGERTU ARTEAN

AGERTU ARTEAN

artista/taldea

**beatriz churruca
echeverria**

Sortutakoak programaren edizioa

II Deialdia

Egonaldiaren garapena

Apirila 2012

Proiektuaren kideak

Beatriz Churruca Echeverria

● Proiektuaren deskribapena

Dantza, eskultura plastikoa, mugimendua eta eszena elkarrekin lotzen dituen argazki-sorta eta arte-praktika transmititzeko eta ulertzeko modua. Argazki-sorta horren helburua da erakusketa-zirkuituak zabaltzea, dantza-jaialdien eskaintza laguntzea eta dibertsifikatzea eta dantzako eta sorkuntza eszenikoko programazioak edo eta performance-ak lagundu ditzaken erakusketa sortzea. Ispiluen gainean egindako marrazkien, paretatik, zorutik edo sabaitik azaleratzen diren eskulturen, iraupen laburreko bideoen eta argazki-sortaren bitartez gauzatu da proiektua. Guztiak dira mugimendua harrapatzeko saiakerak eta guztietan erabili ohi da gorputza.

Sortutakoak programarako argazkia proposatzen du (behar dituen prestaketekin, zirriborroekin eta marrazkiekin); egonaldiaren eremuan, erraztasuna eskaini eta Artelekuk eskaintzen dituen eszenatoki edo kokaleku ezberdinen arteko mugikortasuna errazten du argazkiak. Gorputza konposizio-elementu gisa eta mugimendua edo presentzia lan-tresna gisa tratatzen dira irudi guztietan. Erantzun berrien bila berriro bisitatzen diren tokiak dira kokaleku guztiak nolabait. Presentzia eta mugimendua gogora ekartzeko modua da, toki ezagun batetik, gorputzaren bitartez.



Kanpoko begirada

Mavi Tabernero Llopis. Argazkilaria eta diseinatzaile grafikoa.

Irudian eta Soinuan trebatua da Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolan, eta ikasketak osatu ditu Baionako TIC-ean eta Bartzelonako IDEP-ean. Ikus-entzunezko errealizazioan, gizarte-hezkuntzan eta gizareratzean aritu da bere lanbide-karreraren zehar. Artistaren proiektuetan etengabeko lankidea da, batez ere edizioari eta bideoen eta argazkien berrukipenari, eta baita material grafikoaren diseinuari eta inprimatzeari dagokionez.

● Proiektuaren/egonaldiaren garapena

4 astetan zehar garatutako egonaldia, non artistaren helburua baita hark bakarrik argazkiak prestatzea eta oinarrizko ideia barnean hartzen duen zirriborro gisa egitea; horrela, 10-15 irudi-fitxategi lortuko lirateke, erakusketa baten oinarria osatu lezaketena. Baita, zentroko bizitzan murgiltzea nahi zuen artistak, garai hartan eraldaketa eta berreskuratze unean, eraikina eta mediatekako funtsak larriki kaltetu zituen uholdearen ondoren; horrela, hainbeste pertsonen ibilbidean giltzarria izan den eta hainbeste artisten lana erraztu, proiektatu eta lotu duen arte-zentroari artistak eskaini nahi dion ordain pertsonal bihurtuz lan hori.

Aldi berean, azkeneko irudiaren kontsultarako eta definiziorako espazioa erreserbatzen du, kanpoko orientatzailearekin partekatutako espazioa, astean hirutan bertaratzeko gonbidatuta dagoena. Egonaldiaren ondoren, beharrezkoak diren azken ukituak egiten dira eta inprimatzeari ekiten zaio. Produktzio-fasea bukatuta, lanaren zabalkundeari ekiten zaio, Dantzaguneako egoitzan, Sortutakoak jaialdiaren eremuan, erakusketa eginez (2013ko urtarrila).

● Egonaldiaren abiapuntuko itxaropenak/Sortze-prozesuan aurreratzea

Egonaldiak dena suposatu du, ezinezkoa baita ezer egitea gogo-bultzadarik, denborarik, "aparteko" dirurik eta konpromisorik gabe. Sortze-prozesuari dagokionez, lanaren merkataritza-alderdia alde batera utzita, asetasun handia eta artistari atsegin zaion zerbait egiteko aukera ekarri du, denborei, kostuei eta oihartzunari buruz arduratuz ibili behar gabe.

Nahi zen bezala gauzatu ezin izan den banaketa lana egonaldiaren ondoren egitea artistaren hasierakoa asmoa bazen ere, egindako argazkiek aurkezpen gisa balio dute eta artistak egin nahi duena ondo irudiztatu dute. Oraingoan artista une ezberdinean dago, baina argazkiak erabiltzen jarraitzen du, eta oso baliogarriak dira atseginez eta askatasunez egindako lan-uneak irudiztatzen dituztelako.

● Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreran bultzada

Argazki-sortak ez du hasieran pentsatutako biderik jarraitu, baina hori eguneroko zailtasunei eta denborarik ezari egozten zaio. Bestalde, argazkiak aurkezteko sortutako portfolioak interesa piztu du eta, ondorioz, garatzera lagundu duten itzultze onak eta komentario ugariak jaso dira. Ez da lan iragazgaitza; aldiz, artista aurkezteko erabiltzen ari da. Baita, aukeratutako zenbait argazki saldu dira eta horrek argazki-sorta erakusketa gisa proposatzeko irrikari buruz hausnartzera bultzatu du artista. Argazki bakoitzak erantzun ezberdinak sortarazten ditu eta irudi bakoitzean erabilitako arkitektura edo espazioa uste baino garrantzitsuagoa azaldu da. Artistak lan izugarria egin zuen haren gorputzarekin eta mugimendurekin, eta nahiz eta irudiaren elementu garrantzitsua den, ez du nabarmentasunik hartu balorazio orokorrean. Horrelako "ustekabeak" dira zerbait erakusten dutenak eta, zentzu horretan, lana badabil oraindik.

● Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak

Prozesua bukatuta zein zabalik lagatzen baduzu, egonaldiak aurrera bultzatzen du prozesu hori eta horrela da artistak egonaldia ulertzen duen modua, horretarako balio baitu. Garrantzitsua da egonaldia kokatuta eta zehatza izan dadila, eta luzatzeko aukerarik egon ez dadila. Kanpoko begirada ezarrita asmatu egin dute. Orientatzaile horiek baldintza onetan sar daitezke eta horrek laguntzen du lasaitasunezko eta konfiantzazko giroa ezartzen.

Dantzaguneako egonaldian burututako lanaren balorazioa oso onuragarria izan da, proiektuak tokia eta fisikotasuna lotzen baitzituen, Artelekuko espazioetan dena bat baitzeterren eta naturaltasunez baitzihoan. Artista ez da inoiz sentitu unea aprobetxatzeko zerbait egitera behartuta egongo balitz bezala; aldiz, egindako guztia zintzoa eta beharrezkoa izan zen, eta uste du beste espazio batean ez lukeela hainbeste atseginez eta lasaitasunez egin. Dantzagunea dagoenetik, zenbait gauza bat egiten dutelako susmoa du artistak, eta baita dantzara eta dantza gozatzen duten pertsonen hurbiltzeko eta horien artean dantza zabaltzeko eta laguntzeko lan izugarria egiten ari dela uste du ere.

● Curriculum-aipamena

beatriz churruca echeverría

Artista plastikoa. Objektuak, irudiak eta lan-egoerak sortzen ditu, artea topagune gisa erabiltzea ahalbidetzen dutena. Arte Ederretan lizentziatua, margolaritzan espezializatua, dantza garaikidean prestakuntza paraleloa dauka (eskolak, training-ak, sorkuntza koreografikoa eta inprobisazioa). Ondoren, azken aldiaren egindako zenbait proiektu eta erakusketa identifikatzen dira:

2013. 2016 Fundazioak aukeratua CORNERS OF EUROPE proiektuan parte hartzeko.
2013. CUERPO ESPACIO MOVIMIENTO. Beatriz Churruca (argazkiak) eta Iker Gómez (bideo-dantza). Kultur Leioa, Leioa.
2013. AGERTU ARTEAN, Argazki-sortaren bakarkako erakusketa. Arteleku, Arte eta Kultura Garaikideen Zentroa. Donostia, Gipuzkoa.
2012. ILUSTRATZAILEAREN TXOKOAREN eraikuntza. Aitziber Alonso ilustratzailearekin elkarlana. Aiete Kultur Etxean. Galtzagorri elkarte.
- AGERTU ARTEAN. Arteleku. Argazki-sortaren aurkezpena Kasual Friday ekitaldiaren barnean, Jon Sánchez abeslariarekin batera (Rubio diskoaren aurkezpena). Irun, Gipuzkoa.
2012. El arte de desaparecer/Desagertu artean. Galería du Second Jeudi. Baiona, Frantzia.
2011. DIBUJANDO LA DANZA. Esku-hartze artistikoa informazioa emanaz Gabonetako Dantza stage-etan, Dantzagunean.
2011. Kid's Guernica proiektuaren zuzendaritza Europako Kultur Hiriburutzara hautagaitza, Donostia 2016.
2011. BITAMINE produkzio artistikorako espazioaren irekiera. Irun, Gipuzkoa.
2011. CERO, opiniones gráficas proiektuan parte-hartzailea. Nafarroako Arte Garaikideko Plataforma.
2010. 3, 2, 1... ¡Estamos animando! Tailerraren sorkuntza eta zuzendaritza. ANIMALDÍA (Bartzelona) animazio-enpresarekin elkarlana Donostiako udaleko Gazteria Sailerako.
2010. Inmediaciones, sobre Danza, Arte y Movimiento jaialdiaren parte-hartzailea. Bideo-zirriborroen erakusketa. Iruña, Nafarroa.
2009. Bake Etxearen eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zentroaren proiektuen aholkulari independentea. Donostiako Udala
2009. IV Encuentro de Arte y Paz, Arte en medio del conflicto topaketan parte-hartzailea. Antolatzailea: Gemika Gogoratz. Gemika-Lumo, Bizkaia.
2009. +SOMA piezen bigarren instalazioa Cristina Enea Fundazioan, Donostiako Udaleko Ingurumen-baliabideen Zentroa.
2008. HUM, Hágalo Usted Mismo. Erakusketa Helga Massetani margolariarekin. Sacem, Billabona, Gipuzkoa.
2008. Emakunde aldizkariaren 70. alearen azala.
2008. Emazteen artea I/L'art au féminin II erakusketa kolektiboa. Itzal aktiboa. Saint Jean Pied de Port, Akitania, Frantzia.
2007. Mujer & Medioambiente jardunaldiko Arte y medioambiente mahai-inguruan parte-hartzailea. Artistaren lanaren, proiektuen eta prozesuen aurkezpena. Fundación Caixanova eta Emaús Fundación Social.
2007. XLII Certamen de Artistas Noveles erakusketa kolektiboa. Koldo Mitxelena Kulturunea. Donostia.
2007. BIDEAN Maider Oiarzabalen sorkuntza koreografikorako taularatzea eta laguntza. Dantzan Bilaka 07, Eusko Jaurlaritza. ARTIUM Museoa, Gasteiz.
2007. Ermuko, Ondarroako, Basauriko eta Getxoko Udaletako Berdintasun sailekin lankidetzako proiektua. Pieza eskusiboen eraikuntza+SOMA. 2007. SOMA Cristina Enea Ingurumen-baliabideen zentroan. Donostiako Udala

+ info

Blogspot Beatriz Churruca

titutakoak

iker arrue mauleon
LE PÈRE

artista/taldea

iker arrue mauleon

Sortutakoak programaren edizioa

III Deialdia

Egonaldiaren garapena

Abendua 2012
Urtarrila 2013

Proiektuaren kideak

Iker Arrue Mauleon

Dácil González (ekoizpena)

Luis Miguel Cobo Navarro (musikaria)

**Jorge Fuentes (zuzendaritza-
laguntzailea)**



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

Izen berak daukan Florian Zeller idazle eta dramaturgoaren lanean oinarritutako proposamena da. Alzheimerra daukan aitaren eta semearen arteko harremanaren inguruko hausnarketa partekatzea da helburua. Gaixoa eta hark errealitateari buruz duen ikuspegi aldatua ikusleen erreferentzia bihurtzen dira. Artistaren aita Alzheimerdun gaixoa da eta esperientzia pertsonal hori erreferentziatzat hartu du gai horretara hurbiltzerakoan.

AI DO PROJECT (2009an sortua eta Iker Arruek zuzendua) ekimenaren bestelako proiektuetan jarraitutako ildoa jarraitzen du proiektu honek; hau da, kezka zehatzei erantzuna eman eta egoki dakien lengoai koreografikoa bilatzearen premian datza, hausnarketa horiek ikusleei planteatzeko eta erakusteko xedearekin.

Gainerako produkzioekin komunekoa den eta bi lengoaien (mugimenduari aurre egiteko bi modu, bestearen aurrean kokatzeko bi modu) batuketaren ondorioa den lengoaiatik abiatuta, dantza garaikidea eta Aikido, lengoai koreografiko hori lan bakoitzean definituz doa berezko norabide berezian.

Lengoaien batuketa horren jatorria diziplina biek dituzten antzekotasunen ondorioa da, bai gauzatze teknikoaren mailan, bai haren filosofiaren mailan; entzutea, begirunea, zure gorputzaren kontzientzia bestearen gorputzarekiko, zoruarekin ukitzea, bestearekin ukitzea, errepikapena, diziplina, apaltasuna, ... kontzeptu guzti horiei modu ezberdinean ekiten zaie bai Dantzan bai Aikidon, eta interesgarria da ikustea pertsona bik kontzeptu berbera berenganatzeko modu ezberdinak behar dituztela.

Jorge Fuentes. Aktorea eta eszena-zuzendaria – Zuzendaritza laguntzailea.

Ezagutzen dituzun pertsonekin, konfiantza duzun eta identifikatzen zaren horiekin lan egiteko aukera edukitzea zaila izan ohi da. Sortze-prozesuan giltzarria izan daiteke, ausartzera eta egingo ez zenituzke edo argi ikusten ez dituzun gauza berriak probatzera animatzen baitzaitu.

● Proiektuaren/egonaldiaren garapena

Alzheimer gaitik hurbil zeuden Madrigo ezagun batzuekin antzerki-lana egiteko aukerarekin hasi zen guztia. Hor hasten da artistaren kezka proiektu horretan parte hartzeko aukerarik dagoen jakitea, dantzari gisa edo aktoreei zuzendutako materialaren egile gisa.

Proiektuak lehenengo ikerketa-fase bat dauka: bertan, artistak gaixotasunari buruzko informazioa aztertzen du eta piezarako erreferentziak bilatzen ditu. Alde batetik, frantziar antzerkigilea eta egokitua izango den haren jatorrizko lana. Bestalde, belgikar eskultorea, pertsonen eta animalien osatugabeko gorputzekin lan egiten duena, ohituta ez gauden estetika, eta, aldi berean, edertasunaren edo baldintza estetikoaren bilaketa planteatzen duena. Hasiera batean ezatseginak edo gogorrak izan daitezkeen baina osagai estetikoak, samurra edo positiboa eduki dezaketen irudiei zelan aurre egiten diegun hausnartzea eragin dio artistari.

Proiektuaren bigarren fasean Artelekun egonaldia planteatzen da, sortze-prozesua garatzeko eta AFAGI-rekin topaketak egiteko (Gipuzkoako Alzheimerdunen eta bestelako demenzriadunen senitartekoen eta lagunen elkarteak). Haiek parte hartu duten dantza garaikideko sortze-prozesu honetara hurbiltzeko tailerra egiteko ildoak definitzen dira topaketa horietan.

● Egonaldiaren abiapuntuko itxaropenak/Sortze-prozesuan aurreratzea

Egonaldia ingurune aproposa da esploratzeko eta, prozesua aurrera doan heinean, hasierako helburuak eraldatuz doazela ikusteko. Kasu honetan, hasiera batean asmoa bakarkako lana egitea bazen ere, ondoren lan-taldeari ekin zitzaion, egonaldiaren lehenengo aldia behin osatuta garatu zena. Aldi berean, tailerrak egin ziren AFAGI-n eta ordurako bakarkako lanaren material koreografikoan oinarritutako iraupen laburreko bideo dantza grabatu zen.

Laburbilduz, Sortutakoak programaren III Edizioan hasitako La Père sorkuntza “Invisible Beauty” izenpeko diziplina anitzeko proiektu bihurtu da. Hiru piezaz osatuta dago: aretorako edo kaleko taldeko pieza laburra (lau dantzari); bideo dantza bat; Invisible Beauty-AFAGI gizarte-proiektua. Zalantzarik gabe, egonaldiak abiapuntuko itxaropenak soberan bete ditu.

● Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreran bultzada

Lehenengo bakarkako lan horren garapenari eta ondorengo lan-taldeko pieza bihurtzeari esker, AI DO PROJECT-ek Eusko Jauriaritzaren laguntza jaso du 2014rako eta, horrela, iraupen luzeagoko pieza bat eratzeko lanean jarraitzeko aukera dago, helburu hori ahaztuta zegoela baliabideen eza zela kausa.

2013ko Nazioarteko Dantza Eguna ospatzeko Victoria Eugenia antzokian egindako “Invisible Beauty” piezaren lehenengo erakusketari esker, sorkuntza berriak egiteko gonbidapen pare bat jaso du konpainiak, eta horrek ekarri du bultzada berria eta eragingarria ekimen horren partaideentzako. Era berean, egonaldiari eta horren zehar egindako harremanei esker, taldeak helburua bete du; hau da, sortze eta irakasle-jarduera Euskal Herriaren eremuan finkatzea. Bereziki horregatik, Sortutakoak posiblea egiten duten lan-taldeko kideei eskerrak eman nahi dizkiegu.

● Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak

Esperientzia oso positiboa izan da, sortze-prozesua garatuz gain, egonaldiak epe luzeko proiektua egiteko aukera eman baitigu. Egonaldiaren planteamendua berak laguntzen du epe luzeko proiektua egiten: pieza aretoan erakustea eta dantza eremuko ohiko ikusleak ikustera etortzea baino, prozesua jende ezberdinerantz zabaltzea saiatzen da, jendea elkarrekin harremanetan jartzea, harreman berriak sortzea eta lankidetzako planteamendua egitea ahalbidetuz.

Sortutakoak ekimen oso egokia da, beti gaudelako arazo berdinen aurrean, hau da: zein jende mota doa dantza edo ikuskizun eszenikoa ikustera eta nola zabaldu eremu hori. Egonaldi honen kasuan, eremua zabaldu da gizarte gaiaren norabidean, eta hau oso puntu garrantzitsua da beste motatako ikusleak hezitzeko bide gisa.

Curriculum-aipamena

Iker arrue mauleon

Antzezlea eta pedagogo. Arkitektura ikasketak Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (EHU) eta dantza garaikideko dantzari gisako prestakuntza Madrilen eta Londresen (Eusko Jaurlaritzaren beka).

Besteren artean honako koreografoekin egin du lan: Chevi Muraday, Jens Bjerregaard, Pascal Touzeau, Anders Christiansen, Dominique Port, Mark Spradling, Robert Connor eta Loreta Yurick, Arno Schuitemaker, Russell Maliphant, Mónica Runde...

2006. urtetik geroztik Olga Cobos-ek eta Peter Mika-k zuzendutako COBOSMIKA konpainiako partaide. www.cobosmika.com


Dantzari gisa aritzeaz gain bere kabuz burututako proiektuak ere gauzatu ditu 2009tik geroztik AI DO PROJECT ekimenpean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker.


Gerard Vilar eta Jessica Jaques filosofoek zuzentzen duten Dantza eta Performatibitatea proiektuko kidea da Bartzelonako Unibertsitatean; dantza garaikideari, filosofari eta estetikari buruz begirada analitikoak proposatzen duten hitzaldi multzoa.


Antzezle gisa eta pedagogo gisa dihardu bai Espainian bai Europa mailan.



Iker Arrue elkarrizketa
[Sortutakoak /Dantzagunea](#)

 [Invisible Beauty- laukote](#)

 [Invisible Beauty- bideo dantza](#)

 Facebook
[Ai Do Project-Iker Arrue](#)

Sortutakoak

vicente arlandis recuerda
konpainia losquequedan
PERFORMANCE MUNICIPAL

artista/taldea

vicente arlandis recuerda

Sortutakoak programaren edizioa

III Deialdia

Egonaldiaren garapena

Otsaila 2013

Proiektuaren kideak

Vicente Arlandis Recuerda



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

Errepikapena bilaketa-material gisa erabiliz, esanahietan, adierazleetan, forman edo soinuan murgildu nahi da, lengoai ezberdinen bitartez ikertuz, eta, paraleloki, errepikapena elementu nagusizat duten erreferentziazko proposamen ezberdinei buruzko ikerketa-lana garatuz.

Lan honek galdera-sorta planteatzen du eta dantzaren maila estetikoan eta formalean erantzuteko saiakera gisa aurkezten da:

Zergatik errepikatzen dugu gizakiok?

Zer lortzen dugu errepikapen-esperientziatik?

Nola osatzen da errepikapenaren denbora?

Zein neurritan errepikapenak gauza bera inplikatzeko ala etengabeko aldaketa barnean darama?

Errepikapena funtsezko ezaugarria da dantza eremuan.

Dantzak eta mugimenduak barnean daramate errepikatzeko joera, musikan gertatzen den bezala.

Sandra Gómez de la Torre. Koreografoa eta performer.

Ekoizpen Artistikoko masterra, Pentsamolde Garaikidean eta Ikusizko Kulturaren espezializatua (Valentziako Arte Ederretako Fakultatea). Valentziako Arte Dramatikoko Goi-eskolan lizentziatua eta dantza garaikidean prestakuntza zabala Valentzian eta Bruselan. 211tik 2012ra Ruzafa Escènica jaialdiko jarduera paraleloak koordinatzen ditu Valentzian, ikerkuntzari eta sorkuntzari lotutako zenbait jarduera ezberdin proposatuz. 2010ean ARTEAK eta Azala Sorkuntza Guneak elkarlanean antolatutako Autonomía y Complejidad ikerkuntza-proiektuan parte hartzen du. Gaur egun, Autobiografía Arte Eszenikoetan doktoretza-tesia egiten ari da Valentziako Arte Ederretako Fakultatean.

● Proiektuaren/egonaldiaren garapena

Lan hau aurreko proiektu batetik dator, “Frankesteing”; lan hori joko askeari, idealari edo araurik gabeko jokoari buruzko ikerketan datza. Landutako alderdi bat arauak garatzean eta ondoren suntsitzean datza, erabil daitezkeen objektuekiko mugimendu-material batetik abiatuta.

Proiektua lehenengo lan-fasean zegoen eta maila koreografikoko zenbait material eraikitzea, errepikapen kontzeptuan sakontzen jarraitzea eta lanarekin jarraitzeko metodologia egokia bilatzea zen egonaldiaren helburua. Hauxe zen hasierako asmoa, baina azkenean alderdi ezberdinak landu dira. Alde batetik, non gauden eta nora goazen aztertze balio izan du. Bestalde, ariketa nahiko eszenikoa egitea erabaki zen azkenik. Testuingurua ondo ezagutzen ezenez, lan-aretoko alderdian geratzea erabaki zen. Bartolome Ferrandoren ondorengo aipamenetik abiatuta lan egin zen: “La repetición, como se sabe, desajusta el significado habitual de las palabras y los gestos y genera la irrupción de diferencias y de nuevos sentidos insospechados”. Errepikapenetik abiatuta lan egin zen, esanahi berrien sortzaile gisa. Zera aztertu da: hitzak eta gorputza nola elkar aldatu tokiz, zeintzuk dira bideak hitza toki batean agertzen denetik gorputzean agertzen denera, errepikapena lan-tresna gisa erabiliz.

Sortze-prozesua ixteko, sortze-prozesuaren atea zabaltzeko jardunaldia egiten du artistak Artelekuko dantza aretoetan, haren sortze-prozesuaren zergatiak, nolakoak eta norak oak partekatu nahi dituztenentzako. Baita, ikusleentzako irekiera-prozesu gisa, “Tragedia de los comunes” lana aurkeztu da Kaxilda liburu-dendan.

● Egonaldiaren abiapuntuko itxaropenak/Sortze-prozesuan aurreratzea

Itxaropenak proiektuaren eraikuntzan oinarritzen dira eta ez garapen zehatzean. Hau da, lehenengo bultzada ematean, non eragin nahi dugun bilatzean, zein gaitan, zein galdera egin nahi dugun, nola egin, zein tresnekin, gorputza ardurarekiko nola kokatu.

● Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreran bultzada

2013ko ekainean erakutsi zen pieza lehenengo aldiz, prozesuan zegoela, Madrilgo La Casa Encendida-n, “Y si dejamos de ser (artistas)” testuinguruan. Azkenik, Valentziako Sala Inestable-n estreinatu zen, azaroan. Une honetan banaketan ari da lan egiten. Oraingoan, erakutsiko da Valentziako Sala Carme-n, eta programatzaile asko interesatuta daude. Egonaldiak gure lanaren ohiko garapena laguntzen du eta, artistaren kasuan, asko interesatzen zaion euskal testuingurua hurbiltzen du.

● Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak

Egonaldiak lanak garatzera bideratuta egon dira beti, baina, agian, zentzuzkoagoa da lana hastea eta pentsatzea lan hori nola piztu eta erakutsi, ekoizteko moduei buruz hausnartzea, eta hori da Sortutakoak ahalbidetu duena. Agian, tokiko jendearekin harreman falta nabaritzen da hasieran eta baita hasierako testuingurua ez ezagutzea ere. Bi aste pasata harremana sortzen da, baina prozesuaren amaiera da ere. Interesgarria izango litzateke artistek aurkezpena egitea egonaldiaren hasieran lehenengo harreman bat sortzeko, haien sorkuntzaren zati bat aurkeztea, artistak egiten duena ezagutzera emateko.

Curriculum-aipamena

vicente arlandis recuerda

Performer eta koreografoa. Valentziako Arte Dramatikoko Goi-eskolan lizentziatua, Ekoizpen Artistikoan masterra, Pentsamolde Garaikidean espezializatua Valentziako Arte Ederretako Fakultatean.

2011. urtean zehar jokoari buruzko ikerketa garatu du Advanced Performance Studies eremuan, Bruselan eta Anberesen. Dantzari gisa ari izan da zenbait konpainietan, besteak beste: Jan Fabre, Teatro de los Manantiales, Amaranto, etab. 2001etik geroztik Sandra Gómezekin elkarrekin sortutako Losquequedan konpainian lan egiten du bere proiektu propioetan. Haren azken lanen artean aipa daitezke: Franksteing, Bruselan estreinatuta, Tragedia de los comunes, 12 kideentzako joko-saiakera, Thank You Very Much, BAD 2010ean estreinatuta, Borrón 8, dantzari ematen zaizkion diru-laguntzei buruzko pieza. Une honetan tesi-proiektuan ari da lanean, PLAY INVESTIGATIONS, Arte eszeniko garaikideetan jokoak duen jokoarari buruz.



+ info



Losquequedan elkarriketa
[Sortutakoak /Dantzagunea](#)



[Webgunea Losquequedan](#)

Sortutakoak

eneritz zeberio artetxe
ON

artista/taldea

eneritz zeberio artetxe

Sortutakoak programaren edizioa

IV Deialdia

Egonaldiaren garapena

Iraila 2013

Proiektuaren kideak

Eneritz Zeberio
Raquel Klein
Igone Lopez
Anna Romani
Fanette Pons



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

XXI mendeko gorputza abiapuntua da ikuspuntu historiko batetik. Gizakiaren gorputza non eta nola kokatzen den ikusi nahi da, bere presentzia teknologia berriei lotuta, eta norantz daramatzate komunikazio eta erosotasun eredu berri batean.

Paradigma honen barnean, nola mugitzen da gorputz hori?

Zein da bere barne-barneko eremua?

Gorputzaren zein zati desagertuko litzateke Darwinen arabera gure espezie birtualean?

Zein gorputzasun mota garatuko da?

Oraingo garaietan kontzientzia oso azkar doan bitartean, gorputza gero eta estatikoagoa da. Pieza honetan bi mutur lantzen dira, alde batetik gorputz estatikoa, gaur egun gailentzen duena, eta bestetik, gelditasun horren aurkakoa.

Nahia Iparragirre. Artista.

Artistarentzako pertsona oso hurbila da pertsona-eremuan eta bere curriculumaren eta lanbide-ibilbidearen ikuspuntutik antzezenaren esparrua ematen dio. Artistak une honetan koreografia ikasten du, formak, dinamikak, espazioak, eta antzezenaren esparruan ez du hainbeste arreta jartzen, kanpoko begi honek ematen dio.

- **Proiektuaren/egonaldiaren garapena**

Bi asteko lan-prozesuaren garapena Bartzelonan egin da, eraginkorragoa zelako baliabideen aldetik. Gaia anitza da eta oraindik gehiago eman dezake eta askoz gehiago hazi. Zentzu honetan, garatu den pieza honekin lan-prozesu bat hasi dela uste da, jarraipena eman nahi zaiona, garatu eta handitu. Irailaren bukaeran, Sortutakoak egonaldiaren amaiera bezala, lana publikoari ireki da aurkezpen batean, solasaldi une bat izan zuena Artelekun egindako sorkuntza prozesua azaltzeko.

- **Egonaldiaren abiapuntuko itxaropenak/Sortze-prozesuan aurreratzea**

Egonaldiak hasierako asmoak bete ditu. Proposamena 10 minutu irauten zuen pieza labur bati jarraipena ematea zen. Nahiz eta ikerketa prozesua denboraren iraupenean ez neurtu, egonaldiaren bitartez pieza 25 minutu arte garatu zen. Laburbilduz, Dantzaguneak gaiari buruz lan sakonago batean barneratzeko aukera eman digu, lengoaiak eta piezak orain pisu handiagoa dute. Horrek bere jarraipena bermatu du, oraindik ixteko prozesuan baitago.

- **Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreraren bultzada**

Egonaldiak piezaren garapena bermatu du. Gaur egun “work in progress” bat izaten jarraitzen du. Dantzagunearen hedapena oso positiboa izan da obra ezagutzera emateko

- **Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak**

Sortutakoak bezalako egonaldi batek aberastasun handia eskaintzen du koreografo baten sorkuntza lanerako. Bestalde, gune bat izateko aukerak denbora mugatu baten zehar eta gastu batzuei aurrera egiteko laguntza ekonomikoak, lan prozesua errazten dute, beste era batean batzuetan zaila baita aurrera joatea sorkuntza berri batekin. Egonaldi honen gauza aipagarrien artean, eskaini duen malgutasuna, izapideen erraztasuna eta hurbiltasuna, artistak sorkuntza prozesuan gustura eta eroso sentitzea errazten duena.

Curriculum-aipamena

eneritz zeberio artetxe


Sorkuntza-dantza eta garaikideko irakaslea. Bere prestakuntza dantza klasikoan, jazz eta dantza modernoan hasten du Ondarroan 5 urtekin Dantzarte akademian. Prestatzen jarraitzen du teknika desberdinetan Bilboko hainbat eskoletan; kapoeira, gorputz-espresioa eta keinua, antzerki-dantza. 2005ean Bartzelonara iristen da, eta dantza garaikideko klaseak jasotzen hasten da hainbat eskoletan; Area, La Caldera eta Estudi Anna Maleras. 2006an Publizitate eta harreman publikoetan lizentziatzen da eta paraleloan dantza garaikideko lanbide-prestakuntza hasten du Estudi Anna Maleras-ean. 2008an bere prestakuntza amaitzen du eta Taller Mediterrani-ean sartzen da Ramon Olleren zuzendaritzapean. 2009an dantza bertikalean eta akrobazian prestatzen hasten da Mataroko Espai Cronopis-ean.

Buenos Airesera bidaiatzen du dantza bertikalean prestatzen jarraitzeko (Brenda Angiel eskola), contact improvisation-ean (Instituto Universitario Nacional de Arte), dantza musikalean eta tangon (Estudio Jimena Oliveri). Bueltatzean workshop-ak egiten jarraitzen du, Bartzelonan zein Bruselan, Berlino eta Hanburgon. 2011n prestakuntza bat egiten du Bartzelonako Teatre i intervenció social en el Espai Maraball-en. 2012an Institut del Teatre-ko Goi-Mailako Dantza Kontserbatorioan sartzen da Koreografia eta antzezpeneko ikasketak egiteko.

Lan egin du Circo Delicia, Deambulants edo Medem productions i Oniric events bezalako konpainietan. Harira konpainiako fundatzaile eta dantzaria da. Parte hartu du proiektioak dituen dantza eta bideo-dantzako proiektu anitzetan (Beldur Barik lehiaketan lehenengo saria). Gaur egun La Mandarina konpainian egiten du lan eta sortzeko prozesuetan ari da.



Eneritz Zeberio elkarrizketa
[Sortutakoak /Dantzagunea](#)

 "ON" piezaren bideoa

Sortutakoak

LASALA - judith argomaniz
HOOKED (STILL)

HOOKED (STILL)

artista/taldea

LASALA - judith argomaniz

Sortutakoak programaren edizioa

IV Deialdia

Egonaldiaren garapena

2013ko¹ abendua

Proiektuaren kideak

Judith Argomaniz
Jaiotz Osa

1. Bi aste urrian, bi aste abenduan.



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

“Hooked (Still)” lanak gizakiek beste gizakiekin harreman afektibo bat izateko duten etengabeko beharra adierazten du, eta baldintza horrek dakartzan ondorioak. Lengoai koreografikoak harremanetan izan dezakegun atxikimenduari eta emozio-mendekotasunari buruz ikertzen du. Mugimenduaren indarrari eta doitasunari eta onura ateraz, jokabide horiek dituzten fase desberdinetan pasatzen diren gogo-aldarte desberdinak islatzen dira.

Obra lotura horiei aurre egiteko, beraiekin esperimentatzeko eta ulertzeko beharretik sortzen da. Erronka pertsonala eta profesionala, koreografiaren bitartez egoera horien esplorazioari erantzun nahiez. Gune ezberdinetarako sortutako pieza koreografikoa da. Formatu handiko eta ertaineko antzokiak, areto alternatiboak, eta hiri-gunea berak.

Gune desberdinetan ikertzeko aukera erakargarria da, pieza beraiei egokituz. “Hooked (Still)” lanak ikusleek piezak eskaintzen duen egoeran parte hartzea lortu nahi du, mugimenduaren iradokizunaren bitartez kontzeptua ezagutzeko xedearekin.

Iker Arrue. Antzeslea eta pedagogo.

Iker Arrue piezaren sorkuntzaren hasieran egon zen. Euste-puntu garrantzitsua izan zen, maila profesionalean zein pertsonalean. Bere esperientzia, ahalmena, profesionaltasuna, baita bere eskuzabaltasuna, gogoa eta adorea ere lehen unetik bertan izan ziren. Kanpoko orientatzaile baten presentzia beharrezkoa dela uste da, are gehiago obran antzelze bezala ere parte hartzen denean. Beraz, oraingo honetan Iker Arruek parte hartu behar zuen ere ahal zen neurrian, eta oraingo honetan ohorea egin dio bere altruismoari, bere laguntza eta jakinduria eskainiz.

- **Proiektuaren/egonaldiaren garapena**

Egonaldi artistiko hau eskatzeko motibazio nagusia izan zen “Hooked (Still)” proiektua zabaldu ahal izatea. Eskaeraren unean, piezak gutxi gorabehera 8 minutuko iraupena zuen. Egonaldiak eszena desberdinak proposatzen jarraitzeko balio izan du, obra osatzeko helburuarekin zentzu handiagoa lortzeko.

- **Egonaldiaren abiapuntuko itxaropenak/Sortze-prozesuan aurreratzea**

Egonaldiak hasierako asmoak soberan bete ditu, nahiz eta egia izan hitzartutako baino denbora luzeagoa eman duela zabaldu ahal izateak eta jatorrizko mailan kokatzeak.

- **Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreraren bultzada**

Obra sorkuntza prozesu betean dago. Koreografo bezala aurkezpen eta bultzakada garrantzitsua izan da. Sortutakoak egonaldiaren laguntzaz, Alcobendas Hiriko Nazioarteko Lehiaketan lehen saria irabazi du, bigarren saria Sabadelleko Coreogràfic Lehiaketan eta publikoaren lehen saria Sens-eko 19. Concours Chorégraphique Contemporain Jeunes Compagnes, Frantzia.

- **Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak**

Egonaldia era oso positiboan baloratzen da. Adeitasuna, aurretiko jarrera, prestasuna, jasotako tratua, laguntza, hurbiltasuna eta jasotako erraztasun guztiak ezin hobekak izan dira. Gainera, hitzartutako denboran zehar leku berean lan egin ahal izateak eta jasotako laguntza ekonomikoak, koreografo batek pieza bat sortzeko orduan aurre egin behar dizkien arazoak txikiagotzen dituzte.

Curriculum-aipamena

judith argomaniz

Judith Argomanizek bere dantza klasikoko ikasketak bere jaioterrian hasten ditu, Donostian Olga del Barrio irakaslearekin. Bere prestakuntza Institut Del Teatren eta Maria de Ávila Goi Mailako Dantza Kontserbatorioan jarraitzen du, non lizentziatzen baita gehienezko puntuazioa lortuz karrera amaierako proiektuan. Ballet Biarritz Junior eta Amaury Dance Company konpainietan parte hartu du eta besteen artean Nacho Duato, La Macana eta Shlomi Bitton-en obrak interpretatu ditu.

2012an Diego Hernándezekin batera LASALA sortzen du, dantza eta argazkiaren mundutik etorritako artistez osatutako konpainia. Bere lehen obra, Hooked (Still) saritua izan da estatu eta nazioarteko lehiaketa desberdinetan.

- Lehen Saria Alcobendas Hiriko IX. Dantza eta Arte Eszenikoaren Nazioarteko Lehiaketan - Lehen Saria eta Publikoaren Saria 19. Concours Chorégraphique Contemporain Jeunes Compagnies – Les Synodales-en (Sens, Frantzia).
- Bigarren Saria Madrilgo III. Sortzaile Gazteen Lehiaketan
- Bigarren Saria Sabadelleko VIII. Certamen Coreografic-ean



+ info



"Hooked (Still)-en bideoa

titulutakoak

mikel sarriegi etxezarreta
aurtzaka dantza taldea

**“SANJOANETAKO NESKATXEN
ESKU-DANTZA
BEASAINEN”**

Artista/taldea

mikel sarriegi etxezarreta

Sortutakoak programaren edizioa

Tradizionala (I. deialdia)

Egonaldiaren garapena

2012ko Urtarrila-Otsaila

Proiektuaren kideak

Mikel Sarriegi Etxezarreta
Aitor Furundarena
Izaskun Salazar
Jaione Barandiaran
Koldo Bidekieta



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

Proiektua sorkuntza/ikerketa proiektu bat garatzean datza, non helburu nagusia neskatxen esku-dantzaren protokoloa berreskuratzea den, gaur egun Euskal Herri osoan neurri handi batean galdu dena.

Esku-dantza, dantza soil bat baino gehiago da, udako solstizioaren tradizioen barne kokatzen den erritual osoa da berreskuratu nahi dena, bere osagaiak tradizioaren elementuetan oinarritzen den sorkuntza prozesu honetan osatuz. Euskal dantzaren errepertorioarako izan daiteken ekarpenaz aparte, proiektu honek musika eta dantza batzen dituen erreferentziazko ekitaldi bat eskaini nahi die dantza taldeko neskatilei, eta tradizio berri bat sortu gizartean geroz eta gehiago urrundu ditugun ohitura eta tradizioetara hurbiltzen laguntzeko.

Ez zuen beharrik izan, proiektua garatua bait zegoen.

- **Proiektuaren/egonaldiaren garapena**

Proiektua 2008. urteaz geroztik garatze prozesuan eta martxan zegoen. Ekainaren 23an Beasainen San Joan suaren inguruan ospatzen diren ekitaldietan txertatze bikaina izan du. Alde horretatik ez du egonaldiaren beharrik izan.

- **Egonaldiaren abiapuntuko itxaropenak/Sortze-prozesuan aurreratzea**

“Egonaldiak” eskaini dizkigun aukerek, bi funtzio nagusi bete dituztela esan daiteke: batetik, taldearen barruan neskatilek eta dantzari gazteek egiten duten lanaren balioa eta interesa handitu eta indartu dituzte, motibazioak gora egin duelarik; bestetik, kanpora begira, proiektua ezagutzera eman du, eta balizko beste taldeentzako erreferentzia gisa finkatu dela ere esan dezakegu, neurri batean.

- **Piezaren eguneko unea/Lanbide-karreraren bultzada**

Proiektua ia erabat finkatua dagoela esan daiteke. 2013 urtean, seigarren aldiz bete da errituala eta geroz eta jende gehiago erakartzen du, herrian bertan ezaguna egiten ari delarik. Aipagarria da 2013ko urtarrilean San Telmo Museoan herritik kanpoko lehen aurkezpena egiteko aukera izan genuela, eta ekainean, San Joan bezperan Beasainen bertan dantzatzeaz aparte, hurrengo egunean Olaberriako San Joan jaietan ere erakutsi zen. Aurtzaka dantza taldearen emanaldietan ere ohiko errepertorioaren zati bihurtu da, hainbat bider taularatua izanik: 2012ko Beasaingo Udazken kulturalean, 2013ko Ataungo Aiako Jaietan, 2013ko Huelvako La Puebla de Guzmán, etab. Modu osagarrian, laguntza honi esker, 2013ko Esku-dantzaren bideo grabaketa bat egin dugu eta DVDliburuxka batean argitaratu, bere zabalkunde eta azalpenerako.

- **Sortutakoak egonaldi artistikoaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak**

Garrantzitsua deritzogu dantza tradizionalako proiektuek honelako itxaropenak izatea, gure lanari nolabaitekoa aitortza eta saria suposatzen duenez. Dantzagunearen aldetik oso abegikor zaindu gaituzte eta baliagarria izan zaigu proiektuaren sendotzeari begira.

Curriculum-aipamena

mikel sarriegi etxezarreta

Beasaingo Aurtzaka taldeko dantza-maisu eta zuzendaria, 1965ean jaio eta haurretatik dantza tradizionaleko dantzaria. Gipuzkoako hainbat dantza-maisuekin ikasia. Donostiako ARGIA eta Madrileko Euskal-Etxeko taldeetan aritua, besteak beste. Zazpi aldiz Euskadiko Gipuzkoar Aurreku Txapelduna (1984-1991 bitartean). "Reggio Emiliako Jaialdian" (1988); Cubako "La Habanako 11. Nazioarteko Ballet Jaialdian"; "Lyongo Dantzaren 5. Biurtekoan" aurrekulari aritua. Hainbat formatu txikiko dantza-ikuskizunen egilea. Azken urte hauetan gehien bat Goierriko dantzen ikerketa eta zabalketari emana.



Mikel Sarriegiren [aurkezpena](#).
[Sortutakoak I. jardunaldian](#)



"Sanjoanetako neskatzen esku-
dantza Beasainen" [laburpena](#).
[Sortutakoak I. jardunaldia](#).
[Aurtzaka](#)



[2013 DVD bideoa](#)



[Aurtzaka dantza taldea](#)

Sortutakoak

andoaingo axeri dantza elkarte
AXERI DANTZAREN INGURUAN

Artista/taldea

andoingo axeri dantza elkarteak

Sortutakoak programaren edizioa

Tradizionala (II. deialdia)

Egonaldiaren garapena

2013. urtea

Proiektuaren kideak

Jose Antonio Irazu Mendizabal
Mikel Lakalle Prieto
Izaskun Beraza
Juantxo Arregi Pagola
Xabier Lasa Bergara
Jon Iraola Treku
Joan Jose Arregi Pagola
Lidia Gaston Estanga
Jon Urtasun Martinez



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

Proiektuak jarraipena ematen dio, elkarteak 2010 urteaz geroztik Axeri Dantzari buruz egiten ari den hausnarketari, generoaren eta interpretazioaren ikuspegietatik. Bere helburua da Axeri Dantza eta Soka Dantzaren konbinazioa lantzea, biak Axeri Dantza deitutako dantza bakar batean batzeko, eta Sokadantza berrikustea mistoa bihurtzeko, 2002 geroztik Axeri Dantzan gertatzen den era berdinean.

Oier Araolaza Arrieta. (Elgoibar, 1972)

Dantzaria, Eibarko Kezka Dantza taldeko eta Donostiako Argia Dantza taldeko kidea da. Kazetari eta antropologoa izaki, hainbat ikerketa egin ditu euskal dantzaren inguruan. Azken urteotan, dantzaren komunikazioan eta kudeaketan ari da buru-belarri, eta euskal dantzarien eta dantzazaleen bilgune bihurtu den dantzan.com elkarteko eta web orriko partaidea da. Beste ikerketen artean, soka dantzari buruzko tesia egin dauka, eta aldi berean, historian zehar emakumeak euskal ohituretan bete duen funtzioaren gainean ikerketa ugari egin du, baita proposamenak plazaratu ere.

Curriculum-aipamena

andoingo axeri dantza elkarteak

1975an, Gipuzkoan eta Beterriko herrietan mendeetan atzerago usadio izan zen erritozko dantza Andoainen berreskuratu zen eta harrezkero, urtero urtero San Juan egunean dantza plazara eramateko ardura hartu zuen Axeri dantza Elkarteak. Urtero Andoingo 50 lagunetik gora biltzen ditu entsaiotara eta dantzara, eta gaur egun Andoingo herriaren eta San Juan jaien sinbolorik herrikoienetakoa da. Andoingo mugak gainditu eta Euskal Herrian zabaldu nahian, euskal kulturaren inguruko hainbat egun seinalatuetara (Basauriko Herri dantzen Topagunea, Nafarroa Oinez, Herri Urrats....) eraman da.



titutakoak

alioune diagné
BATTLING SIKI

artista/taldea

alioune diagné

Sortutakoak programaren edizioa

**Sortutakoak
sarea**

Egonaldiaren garapena

Iraila 2013

Proiektuaren kideak

Alioune Diagné



Kanpoko begirada

● Proiektuaren deskribapena

Battling Siki boxeolari senegaldarrari omenaldia eta erretratua da pieza hau. Battling Siki munduko boxeo garailea izan zen 1922an, baina haren herrikideengandik ahaztua ere. Boxeolariaren bizitzari buruz dantzaren bitartez zerbait ekartzea nahi du artistak, haren memoriaren berreskuratzea, haren bizitza ezagutzera ematea eta historia eta oraingoaren arteko bilaketa. Pieza honetan garrantzi handia du boxeoko mugimendu zehatzak; oso mugimendu dantzaria da, kirola da, asko mugitzen da, dantzan bezala. Piezarik garrantzitsuenetakoa da artistarentzat, boxeolariarekin lotzen duten hainbat lotura baitaude eta baita arreta harrapatu dioten hainbat bat-etortze ere, bizitzaren zenbait alderditan.

Garrantzitsua da afrikar dantzak artistaren lanean izan duen eragina. Afrikar (senegaldar) dantzaren teknika da artistaren oinarria eta ez du dantza klasikoan edo jazzean prestakuntzarik jaso. Dantza erro horretan oinarritzen eta inspiratzen da dantza garaikidean lan egiteko; hemendik eta handik bestelako iturriak eta teknikak hartzen ditu dantza hori garatzeko. Oso garrantzitsua izan da europar koreografoekin izandako esperientzia, bestelako lengoaiak ikastea eta haren dantza nola bilakatzen doan ikustea ahalbidetu baitu.

Gomerako Zentro Koreografikoa eta Afrika Etxea

utakoak

Curriculum-aipamena

alioune diagné

Koreografoa, dantzaria eta zuzendari artistikoa (San Luis, Senegal)

San Luiseko Charles de Gaulle Lizeoan, haren jaioterrian, dantza garaikidea aurkitu zuen. Ciré Beyé-k zuzendutako Jalloré Danse konpainiaren entseguak ikusi ondoren, parte hartzea eskatzen dio eta entseguetan onartua da, horrela haren dantzari gisako ibilbidea hasten delarik. Ondoren, Dakarko Arte Ederretako Eskolara doa, non Arte Plastikoetan matrikulatzen baita. Dakarren igaroko dituen bi urtetan zehar, Hardo Ka Heddy Maalem konpainiako dantziarekin entrenatzen da eta lehenengo aukera azaltzen zaio Salia-Ni-Seydou-rekin Burkina Fason praktikak egiteko aukeratua denean. Orduan, Arte Ederretako eskola laga eta Kettly Noel-ekin praktikak egiten ditu, Burkinan lehenengo eta Malin gero. 2008an San Luisera itzuli eta haren lehenengo soloa, "BLABLA", eta konpainia, Diagn'Art, sortzen ditu, eta Duo Solo Danse Dantzako Nazioarteko Jaialdia abian jartzen du. l'École des Sables-en denboraldia egonez gero, Jant-Bi konpainian sartuko da "Amor" izeneko soloa sortzeko Béjart-en omenez. 2009an haren bigarren soloaren lehenengo zatia sortzen du, "Signo de interrogación", gaur egun "This line is my path" bihurtu dena. Baita, hezkuntza artistikoko proiektuak hasten ditu ikastetxeetan; adibidez, "Palabras, Imágenes y Movimientos" diziplina anitzeko proiektua. 2010ean "This Line Is My Path" soloa sortzen du. Pariseko CND-ra eta Holandara gonbidatua da Kenzo Kusuda koreografoarekin elkarrekin solo bat sortzeko. Bere lana erakutsi du Hegoafrikan, Nigerian, Marokon, Mozambiken, Gambian eta Senegalen. Haren soloak biratu ditu Hegoaldeko Afrikan zehar (Dance Umbrella), Nigerian (Ijodee Dance), Marokon (acción Baila jaialdia), Mozambiken (KINANI jaialdia), Gambian eta Senegalen. Duo Solo Danse jaialdiaren 2011ko edizioan zuzendaritza artistikoaren eta antolaketaren arduradun bihurtzen da. 2012an hiru antzezleentzako pieza sortzen du, "Banlieu".



+ info



Alioune Diagne elkarrizketa
[Sortutakoak / Dantzaquea](#)



[Web Duo Solo Danse](#)

Sortutakoak